



ANOETA ▶

## Udalak Mendi Astea antolatu du etzi hasita

GPS ikastaroa egingo dute; diaporamak ere izango dira ▶ 7

TOLOSALDEA ▶



IÑIGO TERRADILLOS

## Tolosaldea Sahararekin elkartearen proiektu ona

Saharako Aaiungo 7 eskola egokitu ahal izan dira horri esker ▶ 6

TOLOSA ▶

## Jaiotzen lehiaketa antolatu dute berriro

Lau sari banatuko ditu epaimahaiak ▶ 5

# Alegiako eta Villabonako gaztetxeak, ospakizunetan

**ALEGIA** ▶ 2006ko urtarrilaren 8a bitarte egingo dituzte Gaztetxearen 18. urteurreneko ekitaldi guztiak

**VILLABONA** ▶ Gaztetxearen ongi-etorri festa ospatu zuten atzokoan; goizetik gauera iraun zuen jaiak ▶ 4



Villabona. Gaztetxearen ongi-etorri festa ospatu zuten atzokoan; mozorrotuta egin zituzten bazkaria bitarteko orduak. IÑIGO TERRADILLOS



Alegia. Sagardoa dastatzeko aukera izan zuten atzokoan Gaztetxearen jarri zuten kupeletik; 18. urteurrena ospatzen aritu ziren. JAIONE ASTIBIA

[www.saldias-miguel.com](http://www.saldias-miguel.com)

**Saldías Miguel**

Kotxe aseguruetan %60 ko beherapenak

- AUTOAK
- ENPRESAK
- AUTONOMOAK
- MOTOAK
- DENDAK
- MOTA GUZTITAKO
- ETXEAK
- ISTRIPUAK
- ASEGURUAK

Nafarroa Etorbidea, 12 behea • 20400 Tolosa • Tel. 943 651189/ 943 653462 • Faxa: 943 653462

**LANDARRI, S.L**  
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa  
Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik atera
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerrien proiektuak
- Hilerrien eraldaketa
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobi apaingintza
- Hilarriak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behea - 20400 Tolosa  
Tel./Faxa: 943 67 01 14  
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa kalea, 7 behea - 20100 Errenteria  
Tel./Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41  
Zerbitzu Iraunkorra: [www.landarri.com](http://www.landarri.com)

## IRUDIETAN ▶

II. Eskalada  
Txapelketa,  
Bonberenean

## I. ETXEBESTE

ARGAZKIAK: JAIONE ASTIBIA

Bonberenean II. Eskalada Txapelketa egin zuten atzo. Partehartzaileek zailtasun ezberdineko hiru bide egin behar izan zituzten. Casadoren eta Rodriguezen artean berdinketa izan zen; bigarrenak bideak denbora gutxiagoan kateatu zituzten, irabazi egin zuen. Artimuza izan zen hirugarren.



Jon Rodriguez billabonatarra, eskalatzen. J. ASTIBIA



Eskalatzaileak lanean ari ziren bitartean, segurtasuna bermatu beharrekoa zen. J. ASTIBIA

## UZTURRETIK ▶ KRISTINA URRUTIA

## Biraok etxeko salan



Iritsi da final handia, gaur arratsaldean jakinen dugu pilotan lau t'erdiko txapelketa zein den. Sarrera guztiak agortuta daude aspaldidanik. Lastima kantxarako txartelik lortu ez izana. Final batek berarekin dakarren emozioa eta urduritasuna galduko ditugu, besteak beste. Frontonetan jasotzen diren ohiko sentimentuak. Pilotariak eta botilleroak adina sufritzen da horrelakoetan, gaur bezalako egun handietan. Etxarria urra-

tzeraino karraxi egiteko egunak izaten dira horiek, ez da broma gero, txapela joan dagoen okasio bakanak baitira.

Baina gauzak aldatu egingen dira laister. Ez gara damutuko etxean geratu izana ere. Frontoia bera etxeko salara, sukaldera edo logelara —telebista dagoen tokira— ekarriko baitigitue. Partidako soinua, zarata eta animo hotsak inoiz baino ozenago eta gertuago jasoko ditugu, etxean egonagatik ere.

Ez hori bakarrik, pilotarien ahotsa garbi-garbi jasoko dugu. Jokatzeko ari diren bitartean esaten duten guztia. Euskal Telebistako erretransmisio arduradunek proposatu dutena onartzen bada, behintzat. Protagonistek mikrofonoak jartzea

baita errealdorearen asmoa. Sakatzeko, pilota harrapatzeagatik supermanen modura lurrera erortzen direnean edo tantoa amaitzean esaten duten guztia gure belarrietara iristea omen da helburua. Alegia, frontonen bertan egonean bagina bezala sentiarazi nahi gaituzte, etxeko sofan eserita gauden arren.

Guk egin dugu proba, jarri dizkiegu mikrofonoak paparrean eta hauxe entzun dugu:

- Xala: «Panpi, arrantzarako astia ukainen dugu?».

- Aimar: «(kusi al dek bigarren ilarako neska ilegorri hori, hori bai katxarroa!». Eta guk kasik nahiago lehen bezalaxe segi, zer esaten duten jakin gabe.

TOLOSALDEKOHITZA  
INFO ▶Nola dago  
euskararen  
egoera  
eskualdean?

Eskerrak abertzaleak diren... Zuek gaia proposatu eta La-kuak zapla! Tokian tokiko egunkariei laguntza gutxitu. Zer dago sobera? 'NV' hizkiak. Zer dago faltan? Lotsa. Ba hori: izenburuak dioena.

JOXELU ▶

Euskararen egoera ez da batere ona. Gero eta jende gehiagok jakin arren, erabilerak gutxituz doa. Zer demontre gertatzen da? Badirudi euskarak umeei eta txakurri hitz egiteko bakarrik baliatzen duela. Gure seme-alabei euskaraz hitz egiten diegu, 'D' ereduaren matrikulatzen ditugu... baina gure artean gaztelania da nagusi. Bene-benetan ezin dut ulertu!

xxx ▶

## IRITZIA ▶ JOXE MARI ITURRALDE (IDAZLEA)

## Literaturaren egoera eskualdean

Egun hauetan Durangon liburu eta disko azoka ospatzen dela eta hitz solte batzuk eskatu dizkizate, idazle naizenez gero, zertxobait kontatu dezadan gaur egungo euskal literaturaren egoeraz. Orokorrean nik esango nuke euskal literaturaren egoera nahiko ona dela, bereziki konparatzen badugu aspaldi batekoarekin. Gu —nire belaunaldikoak, esan nahi dut— idazten hasi ginenean egoera literario eta kulturala askoz kaxkarragoa zen dudarik gabe. Uste dut asko aurreratu dugula. Idazle mordoak dago gaur egun lanean, inoiz baino liburu gehiago kaleratzen dira eta kalitate aldetik ere maila nahiko altua dagoela jende askok, adituk eta ez adituk, onartzen dute. Gehiago egin daitekeela? Dudarik gabe, baina horretan ari gara.

Akatsen artean, hau da, hobetu daitezkeen gauzen artean bat bereziki: uste dut gutxi irakurtzen dela. Hor daukagu erron-

ka nagusia. Irakurleen kopuruak handituz joan beharko luke urtetik urtera eta badi-rudi azken urteotan ez dela nahi beste are-agotu. Kanpainak eta laguntzak behar dira irakurle kopurua hazitzeko joan dadin, adin guztien artean. Gazteek eta behin adin batera heldu direnek gehiago irakurri beharko lukete, eta ez naiz ari egunkarier literaturaz liburuaz baizik. Haur eta gazteen kasuan gurasoek, familiek eta ikastetxeek besteen artean, dute ardurua nagusia zeregin horretan. Gero, behin adin batera helduta, udalak diputazioak, gobernua eta beste hainbeste erakundek hartu behar lukete irakurtzaletasuna kanpaina horien ardurua.

Tolosaldean, esate baterako, gehiago egin beharko litzateke literatura bultzatzeko. Tolosa garai batean hiri oso garrantzitsua izan zen literatura munduan. Aldizkariak, antzerkia, liburuak, hitzaldiak... denetik egon zen hemen. Eta baita idazleak

ere. Hemen sortu zen literatura munduan "Tolosako Eskola" izenarekin ezagutzen den mugimendu literarioa, hemen biltzen ziren, beste gehiagoren artean, Xabier Lizardi, Jon Andoni Irazusta, Aitzol, Orixe, Antonio Maria Labaien, Pepe Eizagirre, Lopez-Mendizabal...

Literaturarekin lotuta, Tolosari aste kultural bat falta zaio. Tolosan agintzen dutenek eta kulturaz arduratzen direnek antolatuko lukete aste literario bat, urtean behin, Euskal Herriko eta kanpoaldeko idazleak hona ekarri, hitzaldiak eta mahai inguruak prestatuz, aldi berean gazte jendea, ikastetxeak ere implikatuz, behar den propagandarekin eta behar den bultzada emanez. Halako garai handiak ezagutu zituen Tolosak horrelako zerbait me-rezi duelakoan nago, gure hiriak berreskuratu dezan garai batean literatura arloan izan zuen maila altua. Posible da hori lortzea. Baina egin gabe dago oraindik.

Bertsolaritzaren  
etorkizuna nola  
ikusten duzu?

Ez al duzue ikusten finalerdietan frontoiak lepo betetako ari direla? Eta jende gazte piloak joaten garela saioetara? BECen Beckham ez da izango, baina, hala ere, jende gazte bete egingo da. Eta oholtzaren gainean bertsolari gazteak egonda.

MAIXUX ▶

Suposatzen dut belaunaldi bat edo gehienez bi gelditzen zaizkiola. Gure lanbide zahar asko galdu diren moduan hau ere aurki galduko dugu.

ARITZ ▶



Ander Artimuza tolosarra. J. ASTIBIA



Pello Casado tolosarra, hirugarren bidea egiterakoan. J. ASTIBIA



Sari bera jaso zuten hiru parte-hartzaileek. J. ASTIBIA

## ESANA ▶

JON IRAOLA  
AKTOREA

«Wazemank'-eko esketxek berdin funtzionatu dezakete hemen edo kanpoan; ez da euskal umorea»

## DATUA ▶

**8**egun. Datorren igandean, hilak 18, izango da Barakaldoko (Bizkaia) BECen Bertsolari Txapelketa Nagusia; han Tolosaldeko eta Leitzaldeko ordezkari bakarra izango dugu: Aitor Mendiluze.

## ASTEKO IRUDIA ▶



IMANOL GARCIA



## David Seco irabazi du Asteasuko VII. Nazioarteko Ziklo-krosa

**Iratxe Etxebeste** ▶ Nagusitasunez nabarmendu zen joan den asteartean David Seco bizkaitarra Asteasuko VII. Nazioarteko Ziklo-kros proban. Cespa-Spiuk taldeko txirrindulariak hasieratik hartu

zuen aurrea, eta erraz hartu zituen mendean bere atzetik sailkatu ziren David Willemsens (Sint-Lenaarts) eta Kenny Geluykens (Scott USA). Argazkian, David Seco proba amaitzerakoan.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
**50.000**  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

## ALEGIA - VILLABONA ▶ GIZARTEA



**Urdanpilleta etxea.** Uztailean egin zuten Gaztetxe, eta orain arte moldaketa lanetan aritu dira Villabonako Urdanpilleta etxean. Azkenean atzo iritsi zen inaugurazioa egiteko eguna. Argazkian, Gaztetxeko hainbat kide goizeko kalejirari ekin aurretik. I. TERRADILLOS



**Kalejira.** Era guztietako mozorroz jantzirik ekin zioten kalejirari Villabonako gazteek aurrean furgoneta zutelarik musika herritik zabalduaz. Atzetik, gazte andana jokoak egiteko gailuak eskuetan eta airean zituztela. INIGO TERRADILLOS



**Mozorrotuta.** Kolorea nagusitu zen Urdanpilleta etxearen atarian. Jai giroan, hankapaloak soinean ibili zenik ere izan zen Villabonako kaleetan barrena. INIGO TERRADILLOS



**Alegiako Gaztetxea.** Atzokoari kupelak irekiz eman zioten hasiera Gaztetxera bertaratutako lagunak. Arratsalderako indarrak gordez, bazkalondotik hasita kanturako eta kontzertuetarako beta izanen zuten. J. A.



**Alegiako elkarte.** Eta batzuk Gaztetxea bazkaritarako prestatzen ari ziren bitartean, besteak sukaldean igaro zuten eguerdia artekoa: banabar gorriak sakramentuekin. 50 bat lagunentzat egin ere. Eltzaria bezperan egosi, eta atzo atzeneko ukituak eman. JAIONE ASTIBIA

# Hango eta hemengo gaztetxeak ekinean

Villabonako Urdanpilletan berritik hasiberriak diren bezala, Alegian adinez nagusitasunera iritsi da Gaztetxea aurten

I. TERRADILLOS - J. ASTIBIA

Batean, Villabonan, hasi berriak direlako, berriro hasiak, alegia, bestean, Alegian, jada 18 urte daramatzatelako; bien hala bietan ospakizun-aldarrikapen eguna zuten atzokoa.

Villabonako Urdanpilleta etxea uztailean egin zuten Gaztetxe, eta oraindano moldaketa eta antolakuntza lanetan arituta, «Gaztetxearen ongi-etorri

fasta» egin zuten. Hala, 11:00ak inguruan ekin zioten jaiari kalejirarekin. Herrian zehar aritu ziren hainbat aldari eginez, eta kalean musika zabalduz era guztietako mozorroak soinean zituztela. Ondoren, eta inauguratu berri duten Gaztetxean berriro ere, hamaiketako oparoen egin zuten hurbildu zirenek. Hamaiketakoari umore puntua emateko antzerki parodia moduko bat ere egin zuten

Gaztetxeko parte-hartzaileen artean.

Bazkari legea egiteko bildu ziren hainbat lagun ondoren. Bertan, bertsoez gain umorista bat ere izan zen giroa alaitzen. Behin bazkariarekin amaituta, poteoa egin zuten Gaztetxeko kideek herrian barrena. Bate-tik bestera ibili eta gero afarirako tartea ere egin zuten.

Festa ez zen hor amaituko, izan ere, bi kontzertuz gozatze-

ko aukera izan zuten gauean Urdanpilleta etxera hurbildu zirenek: Dubet eta Kabul taldeena, hain zuten. Modu horretara, egun osoko festarekin eman zioten ongi-etorria Villabonako Gaztetxeari.

Eta Alegian, berriz, Gaztetxeak 18 urte bete dituela eta, ospakizun ekitaldiekin egun ugari daramazkite, hilaren 7az geroztik zehazki, eta horrela, atzokoa ere izan zuten zertan parte hartua. Eguerdi aldera kupela zabaldu eta sagardoarekin txotx eginez, Gaztetxea jantoki bihurtu zuten, izan ere, 50 bat lagun inguru elkartekoak baitziren bazkaritara. Giro hotzari aurre egiteko banabar gorriak eta sakramentuak zituzten, bero-bero sukaldari «prestuen» eskutik.

Eta ondoren, Gartxon eta Edortarekin kantuan ariz. Eta kantutik dantzara, edo danbor eta perkusio erritmora Mulanboren eskutik igaro ziren, «okupazioaren eta gaztetxeen aldeko» kalejiran. Gauean kontzertua izateko zuten.

Edonola ere, ilbeltzaren 8a arte jarraituko dute horrelako eta halako ekintzekin. Gaur bertan ere, 19:00etan *Emakumea harian* antzerki lana ikusteko aukera izanen da, Oh My god taldearen eskutik.

GABONAK ▶

# Abian da jaiotza lehiaketa

2006ko urtarrilaren 5a bitarte eman daiteke izena; lau sari banatuko dira



Errege Magoen etorrera uanean banatuko dituzte jaiotza lehiaketako sariak, urteroko moduan. J. ASTIBIA

IRATXE ETXEBESTE

Tolosako Udaleko Gazteria departamendutik jakitera eman dutenez, San Bernardo, Ttenetek, Kazkabarra eta Kirikiño aisialdi taldeek jaiotzen lehiaketarako deia luzatu dute Kale Hezitzaileekin batera. Urtero antolatzen dute lehiaketa hori, eta gutxieneko baldintza batzuk ezarri dituzte oraingoan ere lehiaketan parte hartu ahal izateko.

Esate baterako, jaiotza lehiaketara beren lanak aurkeztu nahi dituztenek Kultur Etxeko bulegora joan beharko dute 2006ko urtarrilaren 4a bitarte; hurrengo egunean, hau da, urtarrilaren 5ean, Santa Klaran ere eman ahalko da izena 18:30ean. Hala, ordura arte izena ematen duten jaiotza guztiak Errege kabalgatan hartuko dute parte. Horretarako, Santa Klarara joan beharko dute 18:30ean.

Antolatzaileek lau sari banatuko dituzte lehiaketan parte hartzen dutenen artean: lehenak 90 euroko diru saria jasoko du; bigarrenak, 60 euro; hirugarrenak 50 euro eta laugarrenak, berriz, 30 euro. Sari banaketa Plaza Zaharrean izango da, Errege kabalgata amaitu, eta Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege Magoak bertan dauden bitartean —ordu zehatzik ez dute adierazi Udaleko Gazteria departamendukoek—. Bestalde, antolatzaileek adierazi dutenaren arabera, «Errege kabalgata amaitu ondoren, eta sari banaketa burutu artean, lehiaketan parte hartzen duten jaiotza guztiak Plaza Zaharrean izango dira», herri-tarrek ikus ditzaten.

«Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea esan nahi du», adierazi dute, bestalde, antolatzaileek. Epaimahaiko kideek jaiotza egiteko eskulanaren («rebetasuna eta orijinaltasuna») hartuko dute aintzat saridunak erabakitzerakoan. Jaiotzen lehiaketa prest da, beraz, eta eskualdeko haurrei eta gaztetxoei lanean hasteko garaia heldu zaie, horrenbestez.

Urte berria zurekin konpartitzeko

EGUTEGIA 2006 EUSKADIKO KUTXA

Gure herri gure eta proiektu berrak, irudi kolorez eta gaitasunarekin, gure herriak dituztenak hartzeko, gure herri proiektu berrak, irudi kolorez eta gaitasunarekin, gure herriak dituztenak hartzeko.

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Hormakoa, faldilerakoa, mahigainakoa eta poitakoi

Egutegiak euskaraz eta elebitan editatuko dira, honako formatu hauetan:



GIZARTEA ▶

# Saharako haurren hezkuntza bermatze aldera

Tolosaldea Sahararekin elkarrekin iaz abian jarri zuen proiektuarekin Aaiungo 7 eskolak egokitu dituzte

ERREDAKZIOA

Itxaropenak. Horrexek laguntzen die sahararrei bizitzan aurrera egiten. Izan ere, nork pentsatuko luke due-la 30 urte egun dauden egoerara moldatu beharko zirenik. Beharraren ondorioz, euren lurrak, etxeak, gainerako jabetzak... euren herria eta lurraldea utzi eta Argeliako hegoekialdera, Tinduf hiriarren ondoko desertura joan behar izan zuten bizi berri bati ekite-ra. 1974. urtean jazotakoaren ondorioa da egun bizi dutena. Urte horretan, Espaniak bere kolonia zen Saharako lurraldearen administrazioa Marokori eta Mauritaniari eskaini zituztion —gaur egun Marokoren esku dago soilik— saharar herriaren exodoa bultzatuz. Bi urte geroago desertuan bizitzera behartu zituzten.

Gatazka konpondu artean hori izango zen beraien bizilekua, eta bertan eraiki zituzten haimak, ospitaleak, eskolak... Uste baino luzeago jo du, ordea, eta itxaropena galtzen ez badute ere, luzerako izan liteke konponbidearen eguna.

Urte horietan guztietan aurrera egin ahal izateko hainbat lurraldetatik jaso duten babesa ere oso garrantzitsua izan da sahararentzat, askotariko materiala, janaria edo dirua iristen baitzaie gobernuz kanpoko erakundeek urtean zehar bultzatutako ekimenei esker. Sahara bizi, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin da horren adibide.

2004ko urtarrilean abiarazi zuten Aaiun probintzia edo *wilaya*-ko 7 eskoletako azpiegituren birgaitze lanak helburu zuen proiektua. Saharako haurren %100 daude eskolatuak,

## PROIEKTUA ▶

### LORPENAK

#### Eskoletako azpiegitura.

Aaiungo zazpi eskoletako eraikuntzen birgaitze lanak (zoruak, paretak, sabaiaik, habeak, leihoak...) egokitu egin dituzte.

#### Hezkuntza bermatzea.

Saharako gizartearen etorkizunerako oinarri den haurren hezkuntza bermatzea eta Aaiungo gazteko guztiak *wilaya*-n bertan ikasteko aukera bermatzea lortu da.

nabaria da, beraz, gobernuak hezkuntzari ematen dion garrantzia. Bertan dituzten eskolek, baina, gabezia handiak dituzte. Hala, Saharako gizartearen etorkizunerako oinarri izango den haurren hezkuntza bermatze aldera, eskoletako zoruak, paretak, sabaiaik, leihoak... egokitzeko asmotan lanean jarri zen Tolosaldeko elkartea.

2005eko irailean bukatutzat eman zuten proiektua. Denera, Laskorain ikastolak urtero antolatzen duen Merkatu txikiaren, Kutxako langile talde baten, Tolosaldeko zenbait udalen; hala nola, Tolosakoaren, Anoetakoaren, Villabonakoaren eta Leaburukoaren, eta norbanakoen laguntzekin 28.000 euro bildu ahal izan ditu elkarrekin epe horretan. Eta laguntza horrekin egin dituzten obrei esker eman diren aldaketak nabariak izan dira: Aaiun *wilaya*-ko eskolak funtzionamendu erdian ari ziren lanean eskolen azpiegitura txarra zela eta; ondorioz, *wilaya*-tik kanpo irten beharra izaten zuten zenbait haurrek ikasten jarraitzeko, baina proiektu-

tuaren amaieran egin diren aurrerapengatik, gazteko guztiek euren etxeetatik gertu ikasi ahal dute.

Halaber, egindako lana ikusita Saharako Aaiungo Hezkuntza eta Irakaskuntza Zuzendari Orokorrak, Mahayub Cherif-ek ikasle eta irakasle guztien esker hitzak helarazi dizkio Tolosaldea Sahararekin elkarteari, «lankidetzaren solidarioaren jarraipena» goraiatzat belaualdi berrien formakuntzan.

Bestalde, elkarrekin bazuen proiektu horren baitan beste helburu bat: Tolosaldeko herritarren inplikazioa bultzatzea, hain zuzen; elkarrekin azaldu duenez, «egindako ekimenekin Tolosaldeko herritarrak Sahara herriaren gatazka eta arazoekiko sentikorrak bihurtzea lortu dugu, beraien kultura eta ohiturak ezagutzera eman ditugu, eta erreferenduma iritsi bitartean jasaten ari diren bizimodu txiropa leuntzearen, laguntzea lortu dugu».

### Proiektu irekia

Abenduaren 2tik 8ra Saharara bidaiatu zuten Euskal Herri-tik eta Tolosaldeko hainbat herritar izan ziren tartean. Udan euren etxeetan izan duten Saharako haurren familia bisitatzea izan dute helburu.

Bisitaldi horretan Tolosaldea Sahararekin elkarteko ordezkari gisa Aitziber Malkorra joan zen. Eskolak ikusi eta bertako zuzendariarekin egon zen, egun dituzten gabeziez hitz eginez, hurrengo helburua finantzatzeko. Izan ere, proiektua amaitutzat eman arren, eskolen azpiegituren mantentze lanetan nahiz bestelako beharrezanetan laguntzen jarraitzeko asmoa azaldu du elkarrekin.



Aaiungo 7 eskoletan egin dituzte egokitzeko lanak. I. TERRADILLOS



Gaztekoak, eskolako jolaslekuan, atsedendaldi unean jolasean. HITZA



Saharako haurren %100 joaten da eskolara. HITZA

## iragarki laburrak ▶

**Aireportuak.** Bezero arretarako lanpostuak betetzeko premia. Informa zaitetz 943 31 37 82 telefono zenbakian.

**Haur eskola publikoak.** Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia,

astelehenetik ostiralera. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Garbitzaileak.** Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastetxeak, ospitaleak.

Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informa zaitetz 943 31 37 82.

**Gidariak.** Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritzan. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Administrari laguntzaileak.** Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Sorluze, Mutriku, Zizurkil,

Mendora eta Anoeta. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan 943 31 37 82 telefono zenbakian.

**Harreragileak.** Harreragile-telefonista. Udaletxetarako plaza libreak. Informa zaitetz

943 31 37 82 telefono zenbakian.

**Sukaldari laguntzaileak.** Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak,

zerbitzariak. Hurrengo deialdiak erakunde publikoetan. Informa zaitetz. 943 31 37 82.

AMEZKETA ▶

'Bide eginez'  
II. Batzarra gaur,  
12:00etan

Gaur udaletxeko gela balioan-  
niztean *Bide eginez* II. Batza-  
rra egingo dute, 12:00etan.

TOLOSA ▶

Arraunean  
aritzea  
arriskutsua

Uraren handitzea eta korron-  
tearen indarragatik, bertan  
bateletan arraunean aritzea  
oso arriskutsua dela, batez  
ere, Santa Klarako zonaldean  
ohartarazi du Estanislao Ota-  
egi arraunlari beteteranoak.

GAZTELU ▶

Kontzejua  
zabalduko dute  
hilaren 16an

Herriko kontzejua zabalik  
izango dela hilaren 16tik au-  
rrera jakinarazi dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaro zko dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

**Garraioak.**

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarmendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

ANOETA ▶ KIROLAK

# Mendi Astea antolatu du Udalak etzi hasi eta ostirala bitarte

GPS ikastaroa egingo dute bi egunetan; Josune Bereziartu  
eta Juan Vallejoren diaporama ere izango dira ikusgai



Josune Bereziarturen diaporama ikusteko aukera izango da datorren ostiralean. MAIDER DEL OLMO / GOIERRIKO HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Mendia eta mendiarekin zeri-  
kusia duten kirolak egitea  
atsegin dutenak zorteko dira,  
izan ere, Anoetako Udaleko  
Kultura sailak antolatuta etzi  
hasi eta datorren ostirala bitar-  
te Mendi Astea izango dute he-  
rrian.

Mendi Astearen oinarria bi  
egunetan zehar emango duten  
GPSari buruzko ikastaroa izan-  
go da; lehenengo egunean, hau  
da, etzi, kokatze-sistema oro-  
korren GPSaren funtziona-  
mendua deskribatuko dute,  
eta GPS hartzaile batekin  
orientatzeko eta nabigatzeko  
era ezberdinak azalduko dituz-  
te. Bigarren egunean, hilaren  
15ean, berriz, ibilbideen plan-  
gintza eta analisisrako GPSa or-  
denagailuarekin erabiltzeko  
era ezberdinak erakutsiko di-  
tuzte.

Ikastaroan parte hartzen du-  
tenek GPS sistemaren eta bere  
hartzaileen funtzionamendu-  
ari buruzko zalantzak argitu  
ahal izango dituzte; horixe  
izango da, hain zuzen, ikastaro-  
aren alderik interesgarriena  
antolatzaileek azaldu dutenez.  
Bestalde, izena ematen dute-  
nek duten maila kontuan har-  
tuko da, eta horren arabera an-  
tolatuko da ondoren GPS ikas-  
taroa. Halaber, kartografiari  
eta orientazioari buruzko oina-

rrizko ezagutza baliagarria  
izango da ikastarorako. GPS  
hartzailea dutenek ikastarora  
eramatea ere gomendatu dute  
antolatzaileek.

Orientazio ikastaroaz gain, bi  
diaporama ikusteko aukera  
izango da Anoetako udaletxe-  
ko bideo gelan; lehenengo a-  
steazkenean izango da, *Makalu*,  
*beltzaran handia* izeneko Juan  
Vallejoren diaporama, hain zu-  
zen, eta bigarrena, ostiralean:  
*Josune Bereziartu munduko*  
*emakumezko eskalatzailerik*  
*onena: Bloketik Narancora*  
diaporama.

Astean zehar antolatutako  
ekitaldiekin, beraz, mendiaren  
inguruan gehiago ikasteko eta  
gozatzeko aukera izango da,  
baina opariren bat ere jaso  
ahalko du zortea duenak, bi  
zozketa egingo baitituzte: dia-  
poramak ikustera joango dire-  
nen artean banatuko dute bata  
eta, bestea, orientazio ikasta-  
roa egiten dutenen artean.

**TOLOSALDEKO  
HITZA.INFO**

**Inkesta.** Nola ikusten duzue  
euskararen egoera  
eskualean? Zer dago  
hobetzeko? Sartu gure  
webgunean eta eman zure  
iritzia! ▶

EGITARAUA ▶

**ETZI**

**19:00-21:00.** Orientazio  
ikastaroa GPSarekin (I).  
udaletxeko bideo gelan Jose  
Miguel Alonso EHUko irakasle  
eta Durangoko Tabira  
Mendizale Elkarte  
partaidearen eskutik.

**ASTEAZKENA (HILAK 14)**

**19:00.** *Makalu, beltzaran*  
*handia*, Juan Vallejoren  
diaporama, bideo gelan.

**OSTEGUNA (HILAK 15)**

**19:00-21:00.** Orientazio  
ikastaroa GPSarekin (II)  
udaletxeko bideo gelan.  
Hizlaria: Jose Miguel Alonso.

**OSTIRALA (HILAK 16)**

**19:00.** *Josune Bereziartu,*  
*munduko emakumezko*  
*eskalatzailerik onena:*  
*Bloketik Narancora*  
diaporama udaletxeko bideo  
gelan.

TOLOSA ▶

## Berrikuntza dezente ikusi ahal izan dira aste honetan

Salmentetan nabaritu  
egin da datorren  
asteko Gabonetako  
Azoka Berezia

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso la-  
saia izan zen erosleen alde-  
tik. Dirudienez, jaiegun  
hauen eragina erosleen patri-  
ketan nabarmena izan da,  
salmenten ispilu izanez. Hala  
ere, produktuen zerrenda za-  
bala izan zen, eta berrikuntza  
dezente izan ziren. Datorren  
asteburuko Gabonetako Azo-  
ka Berezia eragina argia  
izan da eskaintzan, eta sal-  
tzaileen lana garbi ikusi ge-  
nuen atzo.

Aurtengo lehenengo gar-  
dua izan zen barazki mahaia-  
tan; artoa ere ikusi genuen  
okindegi mahaian, eta Atari  
kalean, aurtengo baso espe-  
zieen saioa ireki zen atzo. Ga-  
bonetako pinuak, normand-  
nianna pinua, insignis pinua,  
edota douglasa izan ziren  
salgai, baita fruitarbolak ere.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Porrua	2,40	-
Perrexila	0,05	0,06
Kizkur aza	6,00	-
Erromeroa	4,00	6,00
Krabelina	4,00	9,00
Txilarra	3,00	4,30

**Bertako produktuak**

Uxoa	5,00	6,00
Onttoa	24,00	-
Ziza horia	15,00	18,00
Urria	2,00	-
Intxaurra	2,50	4,00
Gaztaina	2,00	2,50
Tolosako babarr.	8,00	12,00

**Produktu ekologikoak**

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Baraburia	1,60	6,00
Dilistak	2,40	-
Tipula	1,75	2,00
Arrautzak	3,50	-

iragarki laburrak ▶

**LANA**

**Zerbitzaria.** Taberna-kafetegi  
baterako pertsona bat behar da.  
Interesatuek deitu 610 61 52 32  
telefono zenbakira.

**SALGAI**

**Egurra.** Su egur lehorra salgai.  
Pagoa eta haritza. Interesatuek  
deitu 615 75 57 62 telefono  
zenbakira.



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko abenduaren 11n, igandea ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

8

hotzena

5

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez

5

ELURRA ARALARREN

Guardexbe:

gaur: ??? / bihar: ???

Pagomari:

gaur: ??? / bihar: ???

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(Zalantzak argizteko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

**AGENDA ▶**

**ANTZERKIA**

**Alegia.** Oh my god taldeak *Emakumea harian* antzezlan eskainiko du, 19:00etan, Gaztebean.

**Tolosa.** Txinako Guandong txobongilo taldeak *Lignan-eko barilen magia* obra eskainiko du Beotibar pilotalekuan, 17:30ean eta 20:00etan.

**DEIALDIK**

**Anoeta.** Dantza-soka antolatuta dute, eta izena eman daiteke hilaren 14a baino lehen Itzuli tabernan.

**Ibarra.** Ibarrik misio taldeak India, Honduras eta Ekuadorren aldeko merkatu txikia antolatuta du parrokiako lokaletan. Liburuak, diskoak, arropa, jostailuak eta bestelako gauzak daude salgai.

**Berastegi.** Podologoa izango da herrian hilaren 17an, eta Gaztainondo Jubilatutako Elkartearen eman behar da izena zerbitzu hori erabili ahal izateko, 16:30etik 19:30era. Telefonoz ere egin daiteke: 943 68 32 64 edo 943 68 32 02.

**Tolosa.** Galtzaundi Euskara Taldeak ludoteka antolatuta du Eguberrietan, hilaren 26tik urtarrilaren 6ra, asteleheneretik ostiralera, 09:00etatik 13:30era. Izen-ematea, Galtzaundien egoitzan.

**Tolosa.** Harizpe Jubilatutako elkarteak Gabonetako Loteria eta saskietarako zenbakiak salgai jarri ditu bazkide eta laguntzat astelehen, asteazken eta ostegunetan 10:30etik 12:30era.

**Tolosa.** Atsedena aisialdi taldeak Loiolara irteera antolatuta du hilaren 26, 27 eta 28rako. Hilaren 13a baino lehen Santa Mariako parroki ebean eman behar da izena.

**Tolosa.** Txosna batzordearen bilera izango da etzi, hilak 13, Inauterien inguruan hitz egiteko. 19:00etan bilduko dira



**EHNA egiteko aukera gaur herri gehienetan**

**GIZARTEA** ▶ Udalbiltzak antolatutako Nazio-tasun Eskubidearen Eguna baliatuz —herenegun izan zen—, Bai Euskal Herriari ekimenak EHNA tramitatzeo deia egin du Tolosaldean eta Leitzaldean egunotarako. Gaur

bertain izango da horretarako aukera Tolosaldeko herri askotan, baina dagoeneko izan da parada beste batzutan. Leitzan, esaterako, atzo egin zuten —argazkian, herritar bat udal-letxean agiria egiten— . JAIONE ASTIBIA

Kultur Etxean, eta aurtengoan bosna jartzeko asmoa duten taldeei deia egin diete antolatzaileek bertara joateko.

**Tolosaldea.** EHNAren tramitazioa egiteko aukera eskualdeko hainbat herritan:

- ▶ Abaltzisketa: 10:30etik 13:30era, udaletxean.
- ▶ Albiztur: 11:30etik 14:30era, udaletxean.
- ▶ Alegia: 11:00etatik 14:00etara, udaletxean.
- ▶ Alto: 11:00etatik 13:00etara, udaletxean.
- ▶ Amezketa: 09:00etatik 12:00etara, udaletxean.
- ▶ Asteasu: 11:00etatik 14:00etara, udaletxean.
- ▶ Belauntza: 11:00etatik 13:30era, Kultur Etxean.
- ▶ Berastegi: 16:00etatik 20:00etara, udaletxean.
- ▶ Hernalde: 12:00etatik 16:00etara, udaletxean.
- ▶ Lizartza: 11:00etatik 13:00etara, udaletxean.
- ▶ Orendain: 11:00etatik 13:00etara, udaletxean.

- ▶ Villabona (Amasa): 11:00etatik 13:00etara, udaletxean.
- ▶ Zizurkil (Goia): 11:00etatik 13:00etara, udaletxean.

**Villabona.** Oinkari dantzari taldearen 30. urtemugan, taldean aritutako guztien bazkaria izango da hilaren 18an Asteasuoko Sarasola sagardotegian. Ondoren, erromeria. Izen-ematea, 660 13 93 80 telefonoan edo Ikastolako ganbaran astearte eta ostegun arratsaldeetan.

**ERAKUSKETAK**

**Tolosa.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren keramika lanak daude ikusgai eta salgai Lanbroa tabernan. Hilaren bukaera arte izango dira.

**MENDI IRTEERAK**

**Tolosa.** Tolosa-Mandubia mendi irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak

gaurko. Ondoren babarrun jatea izango da Mandubian bertan.

**Villabona.** Aizkardikoek antolatuta *Euskal Herriko hiriburuak uztartuz* egitasmoaren baitan Azazeta-Gasteiz irteera egingo dute hilaren 18an. Izena emateko, deitu 943 69 44 58 telefonora edo Aizkardiren lokalera azaldu, ostegunetan, 21:00etatik 22:00etara.

**ZINE-KLUBA**

**Tolosa.** *Torrente 3: el protector* filma, Bonberenean, 19:30ean.

**ZINEMA**

**Leitza.** Tim Burtonen *Nadie sabe filma*, 19:30ean, zinema aretoan.

**Villabona.** *Heffalump* filma, Walt Disneyrena, Gurea antzokian, 17:30ean. Gazteleazko proiektzioa izan da; sarrera: 2,50 euro.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
**Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.

**Bihar**

**Areso.** Goizueta, F. Loidi etxea. 112.  
**Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.

**IRRATIA**

**Txolarre Irratia (107.5 FM - 101.2 FM)**

11:00. *Hitza* hegan saioa errepikatuta eskainiko dute ordu horretatik aurrera. Bihurtik aurrera itzuliko da *Tolosaldeko Ahotza* eguneroko magazina. Gainera, datorren asteko lehiaketan zozketagai izango dira Bertsolari Txapelketa Nagusiko Finalera joateko bi barteil.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Ibai Agirre (Elduain). Gaur 5 urte. Zorionak aita, ama eta bere arreba Aintzaineren partetik.

**HITZA, zorion agurren**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak...  
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

**DANTZA EMANALDIA**

**OINKARI dantza taldea (Villabona)**  
Dantza zuzendaria: Edo Musumendiaraz  
Musika zuzendaria: Xanet Ansorena

**&**

**LEINUA dantza taldea (Hiriburu)**  
Dantza zuzendaria: Roger Goyhenche  
Musika zuzendaria: Elisabet Dufour

Abenduak 17 larunbata, goizeko 22:30etan  
Bilabonako Osoedena Koroalegian  
Sarrera: 10 urte arte 1,2 €  
10 urte gora: 4 €

30 urte

www.hitzak.com

hitza